

8-FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak **hainbat jarduera** egingo beharko ditu **bezeroengana heltzeko** eta **diru-sarrerak lortzeko**, besteak beste. Hauek gure **negozioaren arrakasta** eta **garapenerako ezinbestekoak** izango dira.

Atal hau garatzeko, **taula** bat erabiliko dugu, eta **departamentuka** garatuko dugu.

ZEIN IZANGO DA ZUZENDARITZA OROKORRA?

Zuzendaritzako buruak enpresa sortu dugun **lau pertsonak** izango gara. Hasiera batean, **enpresaren lehenengo pausak** guk emango ditugu. Hau da, lokalaren bilaketa, aliantzak sortzea...



Iker

Ikerrek lokala bilatuko du eta **hornitzaileak aurkituko** ditu. Hornitzaileei **harreman pertsonala** emango die. Hasieran, **bezeroak aurkitzea** kostatuko denez, enpresa saltzen edo sustatzen saiatuko da (publizitatea).



JARDUERAK SAILKA ANTOLATUTA

Behin zuzendaritza orokorra zehaztuta, enpresa aurrera joan ahala, pertsona bakoitzak egingo dituen ekintzak zehaztuko ditugu.



Giza-baliabideak saila

Departamentu honetan Aitorrek lan egingo du. Behin enpresa aurrera joan ahala, behar izanez gero bi langile kontratatuko ditugu. Aitorrek haien kontratu egingo du eta haien soldata zehaztuko du. Gainera, Aitorrek ikusiko du ea langileek baldintzak betetzen dituzten (hizkuntzak, negozioaren inguruko jankintza...).



Saray

Saray jendetasun handia duenez, behin enpresa sortuta, **aliantzak sortzen** saiatuko da. Bai, kompetentziarekin (**koopetentzia**), bai gure kide izan daitezkeen beste enpresekin.



Harriet

Harrietek **salmenta taldea** osatu eta **lehengaiak** edo lokalerako beharrezkoak diren produktuak erosiko ditu. Lehengaiak, jasotako **produktuak berrizteko** lehengaiak izan daitezke, **edota dendak behar duen edozer** (mahaia, apala, esekigailuak...).



Aitor

Aitor **langileak kontratatzeaz** arduratuko da. Gure langileak bi izango dira gehienez, eta ez dute egunero lan egingo. Partzialki lan egingo dute. Lan asko dagoenean etorriko dira, edo zerbaiterako bere zerbitzua behar badugu.



Marketing saila

Ikerrek marketing saila antolatuko du. Merkataritza elektronikoa garatu eta publizitateaz arduratuko da. Web orrialdean aldaketak egingo ditu eta bezeroen kexak konponduko ditu. Halaber, pertsonalki, bai web orrialdearen bidez, bezeroentzat etengabeko prestakuntza emango du. Bestetik, publizitateari dagokionez, **@buba_denda** instagram kontua eramango du, eta bertan produktu berrien berri emango du.



Finantza-saila

Harriet salmenta taldea osatuko duenez, finantza sailaz arduratuko da; lokalaren alokairua ordainduko du, eta bankuarekin harremanak izango ditu. Gainera, diru-laguntzak jasotzeko ekintzak egingo ditu; instituzioekin bilerak eduki, gure negozioaren inguruan interesa duten bezeroak aurkitu... Azkenik, kobroetaz arduratuko da, jasotzen dugun dirua antolatuko du.



Administrazio-saila

Harriet administrazio sailaz arduratuko da. Nominak eta fakturak ordaintzeaz, enpresaren kontuetako mugimenduak kontrolatzeaz, sailen gastuak gainbegiratzeaz eta enpresaren egoerari buruzko balantze orokor edo partzialak egiteaz arduratuko da.



Ekoizpen-saila

Aitorrek sail honetan, entregaz arduratuko da. Hau da, bezeroengana, bai pertsonalki, bai, Correos Express-en bidez, produktuak bezeroengana modu egokienean heltzeaz. Salmenta gainbegiratuko du. Horretaz aparte, jasotako produktuak behar dituzten aldaketak egingo ditu, kalitatea bermatzeko. Azkenik, diseinuari dagokionez, marka pertsonalizatzeaz saiatuko da, hau da, gure enpresaren eragina produktuetan bermatuko du.



Hornikuntza-saila

Saray hornikuntza sailaz arduratuko da. Ondasunen denbora eta kalitatea kontrolatu behar ditu, aitortutako ordainagiriaren eta ordainagiri errealean arteko desadostasunarekin zerikusia duten arazoak konponduko ditu, eta galeren ordaina bilatuko ditu. Beste hitz batzuetan esanda: diru galerak edukiz gero, hauek konpontzeaz saiatuko da, produktuak garaiz eta kalitate onean ailegatzaz arduratuko da, eta ordainagiriekin egon daitezkeen desadostasunak edo aldaketak konponduko ditu.

